



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



TOLOSAKO UDALEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Aurkibidea

1. HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN PRINTZIO GIDARIAK

- 1.1. LEGE-OINARRIA
- 1.2. IRIZPIDEAK NOLA INTERPRETATU

2. KUDEAKETA

- 2.1. Euskararen kudeaketa orokorra
- 2.2. Lidergoa
- 2.3. Langileak
- 2.4. Hizkuntza-gaitasuna
 - 2.4.1. Langileak
 - 2.4.2. Aldi baterako langileen kontratazioa
 - 2.4.3. Hautaprobak
 - 2.4.4. Euskararen jakite-maila frogatzea eta ebaluatzea lanpostuan euskara erabiliz
 - 2.4.5. Hizkuntza-prestakuntza
- 2.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategia
- 2.6. Hizkuntza-klausulak
 - 2.6.1. Zerbitzu-hizkuntzak
 - 2.6.2. Hornitzaileak
 - 2.6.3. Kontratazio administratiboak
 - 2.6.4. Hitzarmenak eta dirulaguntzak
 - 2.6.5. Baimenak eta lizentziak

3. ERABILERA

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

3.1. ZERBITZU-HIZKUNTZA

3.1.1. Irudia

3.1.2. Herritarrekiko harremanak

3.1.2.1. Herritarrekiko ahozko harremanak

3.1.2.2. Herritarrekiko idatzizko harremanak

3.1.LAN-HIZKUNTZA

3.2.1. Barne-harremanak

3.2.1.1. Lankideen arteko ahozko harremana

3.2.1.2. Lan-bilerak

3.2.1.3. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

3.2.1.4. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioa

3.2.1.5. Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza

3.2.1.6. Eskritura publikoak

3.2.1.7. Xedapen orokorrak

3.2.1.8. Pertsonen kudeaketa

3.2.2. Kanpo-harremanak

3.2.2.1. Sektore publikoko erakundeekin ahozko harremana

3.2.2.2. Sektore publikoko erakundeekin idatzizko harremana

3.2.2.3. Enpresa pribatuekin ahozko harremana

3.2.2.4. Enpresa pribatuekin idatzizko harremana

3.2.3. Prestakuntza

3.2.4. Baliabide informatikoak

3.2.5. Sortze-hizkuntza

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

4. KOMUNIKAZIO KORPORATIBOA

- 4.1. Hedabideetako jarduna
 - 4.1.1. Prentsaurrekoak
 - 4.1.2. Elkarrizketak
- 4.2. Webgunea
- 4.3. Sare sozialak
- 4.4. Publizitatea
- 4.5. Iragarki ofizialak
- 4.6. Zabalkunde handiko agiri ofizialak
- 4.7. Udal-aldizkaria
- 4.8. Kartelak eta eskuorriak
- 4.9. Jaietako egitarauak
- 4.10. Irudi korporatiboa

5. EKITALDI PUBLIKOAK

- 5.1. Hizkuntza-kudeaketa lantzea
 - 5.1. Euskarazko saioak
- 5.2. Saio elebidunak
- 5.3. Erdarazko saioak
- 5.4. Parte-hartzaileak
- 5.5. Diruz lagundutako ekitaldiak

6. ITZULPENAK ETA ZUZENKETAK

- 6.1. Itzulpenak eta zuzenketak nola eskatu
- 6.2. Zer ez den itzuliko

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

- 6.3. Itzulpenak nola bideratu
- 6.4. Zer zuzendu behar den
- 6.5. Zuzenketak nola bideratu
- 2. Testugintzarako ohar eta aholku batzuk

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



1. HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN PRINTZIO GIDARIAK

Tolosako Udalaren hizkuntza-irizpideek honako printzipio gidari hauei jarraituko diete:

1. **Euskararen erabilera normala eta orokorra.** Udalaren jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da euskara, bai ahoz eta bai idatziz.
2. **Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.** Herritarrek eskubidea dute Udalarekin harreman guztia haiek hautatutako hizkuntza ofizialean izateko, eta hori bermatuko da. Herritarren hizkuntza-eskubide eta -betebeharren erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sor daitezzen, hizkuntza-politika ezarriko da.
3. **Ekintza positiboaren printzipioa.** Udalak neurriak hartuko ditu euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, baita euskararen erabilerari kalte egiten dion edozein bereizketa, bazterketa, muga edo justifikaziorik gabeko lehenespen ezabatzeko ere. Euskararen alde hartzen diren neurri bereziak —euskaldunen eta beste hizkuntza ofizialaren hiztunen artean berdintasuna sustatzeko eta euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko— ez dira joko gaztelaniaz aritzen direnak baztertzeko egintzatzat.
4. **Hizkuntza propioaren aldeko ekintza argiak abiaraztea eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea.** Udalak gero eta gehiago erabiliko du euskara, bai barneko jardueretan, bai kanpora begira egiten diren jardueretan ere.
5. **Atzerapausorik ez.** Aurreko plangintzen aldean, ez da atzerapausorik onartuko hizkuntza irizpideen inplementazioan.
6. **Euskarak lehentasuna izatea.** Euskarari lehentasuna emango zaio, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan. Ele bietan egin behar denean ere lehentasuna emango zaio euskarari, euskaraz sortuko da, eta ahal den guztietan bereizi egingo dira euskarazko eta ele bietako idatziak.
7. **Hizkera inklusiboa.** Hizkera inklusiboa eta ez-baztertzaila erabiliko da.

1.1.LEGE-OINARRIA

Honako lege eta arau hauek hartu dira irizpideok egiteko oinarri gisa:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5koa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.



TOLOSAKO
UDALA



- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

1.2. IRIZPIDEAK NOLA INTERPRETATU

Hizkuntza-irizpide hauek euskararen erabilera dute ardatz, eta, oro har, ez dute kontuan hartzen gainerako hizkuntzen erabilera zerbitzu-hizkuntza modura. Hala, irizpideetan jaso direnean «*euskaraz egongo da*», «*euskara erabiliko da*», «*euskaraz jarriko da*» eta horrelakoak, horrek ez du esan nahi beste hizkuntza batzuen erabilera baztertzeko denik. Nolanahi ere, kontuan hartuta euskara dela Tolosako berezko hizkuntza, eta gutxiagotua dagoena, Udalak ekintza argiak abiaraziko ditu euskararen erabilera normalizatzeko. Herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, legediak eskatzen duen kasuan gaztelania erabiliko da, beti euskararekin bat.

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



2. KUDEAKETA

2.1. Euskararen kudeaketa orokorra

Udal-organoetan zeharkakotasunez landuko da hizkuntza-kudeaketa. Hizkuntza-irizpideen eta erabilera-planaren jarraipena egiteaz arduratuko da Euskararen Aholku Kontseilua, haren funtzionamendua arautzeko erregelamenduarekin bat etorrita. Zeregin hauek izango ditu irizpideei eta planari dagokienez, erregelamenduan ezarritako funtzioen kalterik gabe:

- Udalaren kudeaketan hizkuntza irizpideak zenbateraino bete diren neurtzea.
- Neurri zuzentzaileak proposatzea, behar izanez gero.
- Erabilera planaren jarraipena egitea.
- Planaren helburuak betetzeko ekintzak proposatzea.
- Planaren helburuak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzea.

2.2. Lidergoa

Udalaren hizkuntza-politikarekin bat etorrita, udal-ordezkariak (hautetsiak eta langileak) eredugarriak izango dira, eta hizkuntza-irizpideekin koherenteak; euskararen aldeko jarrera proaktiboa edukiko dute Udalarekin harremanetan dauden herritarrekin eta entitateekin. Xede horretarako, Euskara eta Hezkuntza Sailaren aholkularitza eta laguntza izango dute.

Udalaren jarduera guztietan bete eta betearazi behar dira ezarritako hizkuntza-irizpideak, eta horren lidergoa hartzea dagokie Udaleko arduradunei, ordezkari politikoak buru direla.

Udalaren kudeaketako aginte-organoetan integratuko da hizkuntza ofizialen kudeaketa, eta zeharkakotasunez landuko dira hizkuntza-irizpideak. Udal-jarduera guztietan, aldez aurretik hartuko dira aintzat hizkuntzaren erabileran eragingo duten faktoreak, eta neurriak hartuko dira hizkuntza-irizpideak betetzeko. Udal-jardueraren batean kexak sortuko balira hizkuntza dela eta, Euskara eta Hezkuntza Sailari emango zaio horren berri, hizkuntza-irizpideen araberako erantzuna emateko. Kexaren eta erantzunaren berri emango dio Udalak UEMARI.

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die Udalak euskaraz lan egiten duela, eta proposatuko die ahal den neurrian hautagai elebidunak aurkez ditzatela Udalerako aurkeztutako hautetsi-zerrendetan.

2.3. Langileak

Udaleko ordezkari politikoei dagokien gisan, langileei ere badagokie herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, baita Udalaren hizkuntza-irizpideak eta erabilera-plana betetzea ere.



Herritarren aurrean jarrera proaktiboa agertuko dute langileek, lehen hitza euskaraz egin. Horrez gain, herritarren hizkuntza-ohituretan eragin handia dauka udal-langileek beren artean erabiltzen duten hizkuntzak; Udalean entzuten den hizkuntza bada Udalaren irudia ere, eta udal-langileak euskaraz aritzeak prestigioa ematen dio euskarari. Horrenbestez, Udalak sustatuko du langileek beren arteko harremanetan euskaraz hitz egin dezaten.

2.4. Hizkuntza-gaitasuna

2.4.1. Langileak

Udalaren helburua izango da udal-langile guztiek euskaraz lan egiteko gaitasuna izatea.

Lanpostu zerrendan dauden lanpostu guztiek ezarria izango dute hizkuntza-eskakizuna (bai ahozkoa/entzumenekoa, bai irakurmenekoa/idazmenekoa), baita derrigortasun-data ere. Lanpostu berriak sortzeko edo aldaketaren bat egiteko, Euskara eta Hezkuntza Sailari jakinaraziko zaio, eta hark hizkuntza-eskakizunaren proposamena egingo du, lanpostuaren funtzioak kontuan izanda. Txosten hori Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaliko du, hark bere txostena egin dezan. Eusko Jaurlaritzaren txostena ez da loteslea izango, eta Udalak izango du eskakizunari buruzko azken hitza.

Hizkuntza-eskakizunak ezartzeari dagokionez, eskakizun asimetrikoak ezartzeko aukera jasotzen du 19/2024 Dekretuaren 22. artikulua. Udalaren irizpidea izango da idatzizko produkzioerik batere ez duten lanpostuetan jartzea, eta idatziz gaitasun apalagoa eskatzea.

2.4.2. Aldi baterako langileen kontratazioa

Edozein dela ere haien egitekoa, aldi baterako langileren bat kontratatu behar izanez gero, Udalak euskara-gaitasuna eskatuko die; hain justu, lanpostu-zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien hizkuntza-eskakizunaren pareko euskara-gaitasuna. Lanpostu guztiek, baita unean uneko egoeraren arabera ere aldi baterakoek ere, esleitua izango dute hizkuntza-eskakizuna, postuaren ezaugarriak kontuan harturik.

Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu bat ateratzen bada deialdira, hizkuntza-eskakizuna bete egin behar da lanpostu horretarako irispidea izateko. Horrenbestez, edozein lanpostu legez hornitzeko, dagokion hizkuntza-eskakizunari igarotako derrigortasun-data jarriko zaio, langileak lanean hasi baino lehen egiaztatua eduki dezan.

Lanpostu-zerrendakoa ez den lanposturen bat sortu edo hornitu behar bada, lanpostu horren funtzioen arabera hizkuntza-eskakizuna ezarriko zaio, eta lanean hasi aurretik egiaztatu behar da. Deialdian espresuki zehaztuko da zein euskara-maila eskatzen den.

Beharrezkoa denean, kontratazioa egin aurretik Udalak dagokion euskara-proba egingo die izangaiei, eta kontratazio guztietan lan-kontratuak euskaraz sina daitezten sustatuko du.



2.4.3. Hautaprobak

Udalak antolatutako hautaketa-prozesuetan, proba bat behintzat euskaraz egiteko eskatuko zaie hautagaiei. Dagokion deialdian adieraziko da zein proba egin beharko den euskaraz.

Hautaketa-prozesuetako epaimahaia izendatzean, aintzat hartuko da hizkuntza-gaitasuna. 19/2024 Dekretuaren 28. artikulua jasotzen du hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea hautaketa-prozesu osoa euskaraz eginda. Aukera hori bermatze aldera, Udalak bultzatuko du epaimahaian egongo direla lehiaketan dagoen postuaren hizkuntza-eskakizuna baino handiagoa dutenak, eta sustatuko du kideetako bik gutxienez C2 mailako gaitasuna izatea.

2.4.4. Euskararen jakite-maila frogatzea eta ebaluatzea lanpostuan euskara erabiliz

19/2024 Dekretuaren 29. artikuluari jarraikiz, Udalak aukera emango die interesa duten udal-langileei, euskararen ezagutza egiazta dezaten lan-jardunaren bidez. Horretarako, langileak aurkeztu beharko du eskaera, eta horri buruzko txostena egingo du Euskara eta Hezkuntza Sailak. Eskabidea Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari egingo zaio, hark egin dezan ebaluazioa, eta, hala badagokio, langileari gaitasuna egiazta diezaion.

2.4.5. Hizkuntza-prestakuntza

Udalak baimenak eta laguntzak emango ditu lanpostu-zerrendan dauden lanpostuetako langileek hizkuntza-prestakuntza egokia izan dezaten.

Prestakuntza horretan, lehenik, derrigor bete beharreko hizkuntza-eskakizunekin lotutako beharriari erantzungo zaie. Hortaz, lehenetsuna izango dute lanpostuan derrigortasun-data ezarrita egon eta egiaztatu ez duten langileen eskaerak, langile horiek karrerako funtzionarioak, bitartekoak zein lan-itunpekoak izan, sail bakoitzeko egoera kontuan hartuta. Bigarrenik, hizkuntza-erabilera handia edota eragin sozial handia duten lanpostuak lehenetsiko dira prestakuntza-jardun horietan.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatze aldera langileari emandako prestakuntza-aldia bete bada, eta kasuan kasuko luzapenak eman ondoren, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten eta izaera berezikoak ez diren lanpostuetan ez dauden langileak lanpostutik kentzeko espedientea hastea aztertuko du Udalak.

2.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategia

Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia adostuko du, eta helburuak ezarriko ditu, baita helburu horiek betetzeko behar diren neurriak eta baliabideak ere.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz lan egingo dute, eta Udalak horretarako beharrezko baliabideak eskainiko dizkie.



2.6. Hizkuntza-klausulak

Udalak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jasotzea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak.

Udalak, pleguetan, horiek behar dien kasuetan, edota kontratuan, pleguak behar ez direnetan, zehaztuko du kontratatutako enpresak Udalarekin euskaraz aritu beharko duela.

2.6.1. Zerbitzu-enpresak

Zerbitzu-enpresa berriekin kontratua sinatzean, euskararen baldintza sartuko da, eta adieraziko da Udalaren hizkuntza-irizpideak bete beharko dituela.

Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, Udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatuko eta sinatuko da.

2.6.2. Hornitzaileak

Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketa eskatzeko baldintzak adosten direnean (aurrekontua, faktura, idatzizko harremana...), euskararen inguruko baldintzak ere zehaztuko dira, eta enpresa Udalarekin euskaraz arituko dela. Ezarritako baldintzen betetze-mailari jarraipena egingo zaio.

2.6.3. Kontratazio administratiboak

Hau bermatu beharko da kontratazio administratiboetan:

- Herritarrek artatuak izan daitezela haiek hautatutako hizkuntza ofizialean.
- Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, Udalak ezarritako hizkuntza-irizpideen arabera.

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatuko da: enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza-irizpideak bete beharko dituela zerbitzua ematerakoan. Hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori jasota egongo da kontratuko administrazio-baldintza partikularren agirietan.

Esleipendun izendatu aurretik, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerari eskatuko zaio identifikatu ditzala kontratua aurrera eramateko beharrezkoak diren lanpostuetan jardungo duten langileak. Adierazi beharko du langile horiek zer hizkuntza-gaitasun daukaten, eta, hala badagokio, gaitasun hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu.

Zerbitzua ematean, herritarrekiko ahozko harremanetan euskarazko eskaintza aktiboa egin beharko du esleipendunak. Horretarako, langileak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta,



gero, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraitu. Herritarrentzako inprimakiak, oharrak, ziurtagiriak, jakinarazpenak eta beste idazki batzuk euskaraz ematea bermatu beharko du.

Kontratazio-organoari dagokio hizkuntza-baldintzak betetzeari jarraipena egitea. Hizkuntza-baldintzak urratzen badira, kontratuak ez betetzeagatik araudiak dioena aplikatuko da.

Udalak hirugarrenei eskatzen dizkien azterlanei, proiektuei eta antzeko lanei dagokienez, eskatuko da euskaraz behintzat idatzita egotea. Eskakizun hori jasota egon beharko da onartzen diren administrazio-kontratuaren baldintza-agirietan.

2.6.4. Dirulaguntzak eta hitzarmenak

Udalak pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza-klausulak sartuko dira.

Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehaztugabe batekin edukitzea zuzeneko harremana, euskararen erabilera bermatuko da. Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, euskaraz egingo dira. Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik erator daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, era egokian arrazoitutako salbuespenetan izan ezik.

Haurrentzako eta gazteentzako egiten diren jarduerak euskaraz egingo dira beti.

Haurrekin eta gazteekin aritzen diren hezitzaileei formazio soziolinguistikoa emango die Udalak, eta Udalaren hizkuntza-irizpideak jakinaraziko zaizkie.

2.6.5. Baimenak eta lizentziak

Bide publikoa. Bide publikoa erabiltzeko baimenetan, baldintza gisa jarriko da iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan euskara erabiltzea. Jabari publikoaren erabilera pribatiboa egitean (terrazetan, adibidez), klausula egokiak txertatuko dira erabiltzaileei edo kontsumitzaileei ematen zaizkien informazioak eta abisuak euskaraz komunika daitezen; era berean, jendaurreko errotulu, ohar, seinale eta abarrak euskaraz egotea eskatuko da.

Irekitzeko baimenak. Irekitzeko baimenak ematean, eskatzaileak euskarazko errotuluak jartzea sustatuko da, eta Udalak horretarako dauzkan dirulaguntzen berri emango zaio.

Udal-instalazioak erabiltzea. Udalaren jabetzako instalazioak erabiltzeko baimenak ematean, euskara erabiltzeko laguntza eskainiko zaie eskatzaileei, batik bat jendaurreko ekitaldietan. Ekitaldi horiei lotutako idatzizko euskarriak euskaraz egongo dira: kartelak, iragarkiak, oharrak...

Jaietako postuak eta barrakak. Festetako postuak eta barrakak jartzeko baimenetan, berriazko hizkuntza-klausulak zehaztuko dira, haien berezitasunak kontuan izanik. Euskara eta Hezkuntza Sailak laguntza eskainiko die eskatzaile horiei prezioak, errotuluak



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

eta abarrekoak euskaraz jartzeko, baita girotzeko erabiltzen musikan euskararen presentzia egokia bermatzeko ere.

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



3. ZERBITZU-HIZKUNTZA

3.1. Irudia

Udalaren eta udal-erakundeen irudi korporatiboaren elementuak, organoen eta organismoen izenak euskaraz idatziko dira, euskarria edozein dela ere.

Euskaraz egiteko aukera badagoela adierazteko elementuak jarriko dira udal-eraikinetan.

Errotuluetan, oharretan, seinaleetan eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Lehenetsiko da piktograma bidez jartzea mezuak, euskarazko azalpenarekin.

Euskarriak. Euskaraz egongo dira gutun-azalak, orriak eta gisakoak; egutegiak eta horma-irudiak ere bai. Euskaraz errotulatuko dira udal-ibilgailuak, jantziak, altzariak eta halakoak.

Ahozko mezuak. Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti.

Kaleko pantailak. Aukera dagoenean, euskara hutsez jarriko dira, bai eragileen materiala euskara hutsez dagoenean ere. Lehenetsiko da piktograma bidez jartzea mezuak, euskarazko azalpenarekin. Bestela, ele bietan egingo da, euskara nabarmenduz.

Izapideak egiteko pantailak (Udaletxe sarreran eta Kiroldegian). Hasierako pantaila euskaraz egongo da, eta herritarrak zer hizkuntzatan erabili nahi duen hautatzeko aukera izango du. Gaztelaniaz ere ulertzen diren euskarazko hitzak (dela piktograma batez lagunduta daudelako, dela gaztelaniaren antzekoak direlako...), euskara hutsean utziko dira.

Agenda. Elebitan egingo da, baina euskaraz izango du lehentasuna. Horretarako, euskara nabarmendu egingo da.

3.2. Herritarrekiko harremanak

3.2.1. Herritarrekiko ahozko harremanak

Lehen hitza. Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean diharduenak euskaraz egingo du lehen hitza, eta euskaraz jarraituko du solasaldia, betiere herritarrak ez badu nahi gaztelaniaz jardutea.

Mezu orokorrak. Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti: erantzungailu automatikoan, bozgorailuz...

3.2.2. Herritarrekiko idatzizko harremanak

Inprimakiak. Udalak beti izango ditu herritarraren esku euskarazko eta ele bietako agiriak. Herritarrak agiriren bat eskatzean, eskaeraren arabera emango zaio euskaraz edo ele biz. Beste erakunderen baten inprimakien kasuan irizpide hori aplikatuko da. Beraz, erdara hutsezko inprimaki bat etorriz gero, Udalak euskarazko bertsioa eskatuko dio erakundeari.



TOLOSAKO
UDALA



Jakinarazpenak. Etxera bidaltzen diren agirien kasuan (jakinarazpenetan, adibidez), euskara erabiliko da beti. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzun zaitza idatziz.

Administrazio-prozedurari lotutako dokumentuak. Administrazio-prozedura batean interesdun diren pertsonen irispidea izango dute prozedura horren izapideetan sortu den dokumentaziora, gardentasun-alorreko legediak xedatzen duen eran. Dokumentazio hori sorburu-hizkuntzan kontsultatu ahaliko; hala ere, Udalak interesdunen zerbitzura jarriko ditu eskuragarritasuna eta gardentasuna bermatzeko behar diren itzulpen-tresna elektronikoak.

Komunikazio elebiduna. Komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egin behar bada, euskara nabarmenduko da. Honako hauek izango dira euskara nabarmentzeko ohiko bideak:

- *Kokapena.* Euskara goian eta gaztelania behean jar daiteke. Zutabeetan jarriz gero, ezkerrekoa euskaraz; eta, orriak badira, eskuinekoa erabiliko da euskarazkorako.
- *Tipografia.* Letra-tipoaren edo tamainaren bidez nabarmendu euskarazko testua.
- *Laburpena.* Euskaraz jarritako mezu bera era laburragoan eman gaztelaniaz.
- *QR kodea.* Erdarazko itzulpena jotzeko QR kodea txertatzea.



4. LAN-HIZKUNTZA

4.1. Barne-harremanak

4.1.1. Lankideen arteko ahozko harremana

Telefonoz eta aurrez aurre lehenengo hitza euskaraz egingo da.

Lan-ordutegiko ahozko harremanei dagokienez, kontuan hartu behar da jendaurreko lanpostuetan (bai leihatilan, bai kalean) herritarrari lehenengo hitza euskaraz egin arren, herritarrarentzako pisu handia daukala udal-langileek beren artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udaletxean entzuten den hizkuntza, Udalaren irudia ere bada. Horrenbestez, udal-langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak.

4.1.2. Lan-bilerak

Udal-bileretako hizkuntza euskara izango da.

Batzordekide berriak hautatzerakoan, kontuan hartuko da Udaleko lan-hizkuntza euskara izatea dela Udalaren helburua. Batzordekideak hautatzean, haiek bi hizkuntza jakitea hartuko da kontuan, eta, kideren batek euskara-gaitasunik ez badu, aztertuko da jarduera euskaraz egin ahal izateko zer bide jar daitezkeen (aldibereko itzulpena, xuxurlaria...).

4.1.3. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Zigiluak eta sinadura elektronikoak euskaraz egongo dira.

Ordenagailuan eta zerbitzarrietan dauden karpetak euskaraz izendatuko dira.

Apaletan, artxibategietan, karpetetan eta abarretan jartzen diren etiketak eta noizbehinkako oharrak euskaraz idatziko dira.

4.1.4. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioa

Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egingo dira (txostenak, memoriak, azterketak eta horrelako dokumentuak).

Barneko iragarki-tauletako oharrak, zirkularrak, jakinarazpenak eta antzekoak euskaraz jarriko dira.

Langileek barne-izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak...) izapide horiek euskaraz egiteko modua egongo da.

Barrurako den agiriren batek eragiten badio hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-araudia betetzetik salbuetsita dagoen langileren bati, eta langile horrek euskara-gaitasun aski ez badu, udal-funtzionamendua ez tratatzeko itzulpen-tresna elektronikoen berri emango zaio.



TOLOSAKO
UDALA



4.1.5. *Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza*

Prozedura administratiboak euskaraz jarriko ditu abian Udalak.

4.1.6. *Eskritura publikoak*

Udalak euskaraz egingo ditu eskritura publikoen idazkera eta haien inskripzioa dagokion erregistroetan.

4.1.7. *Xedapen orokorrak*

Xedapen orokorrak izapidetzeko urrats guztiak euskaraz abiaraziko dira.

4.1.8. *Pertsonen kudeaketa*

Langileentzako inprimakiak euskaraz idatziko dira: baimenak, iradokizunak...

4.2. Kanpo-harremanak

4.2.1. *Sektore publikoko erakundeekin ahozko harremana*

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-esparruan kokatutako erakunde publikoekin euskaraz egingo da ahozko harremana. Solaskideak ez badaki euskaraz, euskaraz hitz egiteko gai den norbait jartzeko eskatuko zaio erakundeari.

Euskara hutsezko harremanak bultzatzeko, alde biko itunak egitea sustatuko du Udalak.

4.2.2. *Sektore publikoko erakundeekin idatzizko harremana*

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-esparruan kokatutako erakunde publikoekin euskaraz egingo da idatzizko harremana. Euskara hutsezko harremana izatea bultzatuko da, eta horretarako neurriak hartuko dira. Agiriak euskara hutsez bidaliko zaizkie erakunde horiei, eta haiengandik euskaraz jasotzea eskatuko da. Horrenbestez, erakunde horietatik agiriak erdara hutsean jasoz gero, sarrera emango zaie, baina gutun bat bidaliko da, horrelakoak euskaraz jasotzeko nahia adieraziz.

EAEko lurralde-esparruan dauden Estatuaren menpeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan euskara erabiliko da beti. Administrazio horietatik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, sarrera emango zaie, baina gutun bat bidaliko da, horrelakoak euskaraz jasotzeko nahia adieraziz.



4.2.3. Enpresa pribatuekin ahozko harremana

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean hizketan ari denak euskaraz egingo du lehenengo hitza. Ondorengo elkarrizketa ere euskaraz izatea sustatuko du, eta, horretarako, euskarazko solaskidea eskatuko du.

4.2.4. Enpresa pribatuekin idatzizko harremana

Erakunde pribatuetarako agirietan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...). Enpresak gaztelaniaz jaso nahi baditu, ele bietan helaraziko zaizkio.

4.3. Prestakuntza

Udalak antolatzen dituen ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

Langileek beste erakunderen edo enpresaren batek antolatzen dituzten prestakuntza-ekintzetara joan behar baldin badute, euskarazkoa hautatuko da, aukera dagoen guztietan.

Langileek kanpo-erakunde baten prestakuntza-jardueretan aritu behar badute, Udalak eskatuko du jarduera hori euskaraz izan dadila, erakunde horrekin harremanetan jarrita.

4.4. Baliabide informatikoak

Lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, Udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei.

Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenetsiko ditu Udalak. Administrazio-jarduera automatizatuko sistemak eta bestelako aplikazioak diseinatzean, euskara izango da erantzuteko eta kontsultak egiteko lehen hizkuntza.

4.5. Sortze-hizkuntza

Udaleko administrazio-atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortuko dute horretarako gaitasuna duten langileek.



Laburpena

KUDEAKETA	
Euskararen kudeaketa orokorra	Udal-organoetan zeharkakotasunez landuko da hizkuntza-kudeaketa. Hizkuntza-irizpideen eta erabilera-planaren jarraipena egiteaz arduratuko da Euskararen Aholku Kontseilua.
Udal ordezkariak	Eredugarriak eta koherenteak izango dira hizkuntza irizpideekin.
Langileak	Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta Udalaren hizkuntza irizpideak beteko dituzte.
Hizkuntza gaitasuna	Helburua izango da udal-langile guztiek euskaraz lan egiteko gaitasuna izatea.
Hautaprobak	Udalak probetako bat gutxienez euskaraz egiteko eskatuko die hautagaiei.
Hizkuntza klausulak	Udal kontratuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta baimenetan beharrezkoak diren hizkuntza klausulak sartuko dira.
Euskararen erabilera sustatzeko estrategia	Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia adostuko du, eta helburuak ezarriko ditu, baita helburu horiek betetzeko behar diren neurriak eta baliabideak ere.
ERABILERA	
Zerbitzu hizkuntza	
Irudia	
Irudi korporatiboa	Irudi korporatiboaren elementuak, organoen eta organismoen izenak euskaraz idatziko dira, euskarria edozein izanda ere.
Errotuluak, oharrak, seinaleak	Euskaraz egingo dira. Lehenetsiko da piktograma bidez jartzea mezuak, euskarazko azalpenarekin.
Euskarriak	Euskaraz egongo dira gutun-azalak, orriak eta gisakoak. Udal ibilgailuak, jantziak... euskaraz errotulatuko dira.
Herritarrekin	
Herritarrekiko harremanak ahoz	Lehenengo hitza euskaraz egingo da eta euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo zaie herritarrei ahoz.
Ahozko mezuak	Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak euskaraz izango dira.
Inprimakiak	Agiriak euskaraz eta ele bitan izango ditu udalak.
Jakinazpenak eta baimenak	Herritarren hizkuntza hautua errespetatuko da.
Komunikazio elebiduna	Udala komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egitera behartuta dagoenean euskaraz izango du beti lehentasuna eta nabarmenduta erabiliko da.
Udal barneko harremanak	
Lankideena artean ahoz	Euskaraz izango da lehen hitza. Udal bileretako hizkuntza euskara izango da.
Hizkuntza paisaia	Errotulu, ohar, zigilu, ordenagailuko karpetak, noizbehinkako oharrak... euskaraz idatziko dira.



Idatzizko komunikazioa	Erakunde barruko lan-komunikazioak euskaraz egingo dira: memoria, txosten, zirkular, jakinarazpen, barne-izapideak...
Prozedura administratiboak	Ofizios abian jarritako prozedura administratiboak euskaraz izango dira, eta gainerako espedienteetan, udal barrurako prozedura guztiak euskaraz izango dira.
Kanpo harremanak	
Sektore publikoa	EAEko nahiz Nafarroako erakunde publikoekin euskaraz komunikatuko da, bai idatziz, bai ahoz.
Enpresa pribatuak	Lehen hitza euskaraz izango da beti. Udalak ahozko harremana euskaraz izatea sustatuko du.
Langileentzako prestakuntza	Udalak antolatutakoak euskaraz izango dira beti. Beste erakunderen batek antolatutakoetan euskarazkoa hautatuko da (aukera den guztietan).
Lanpostuetako tresna edo aplikazio informatikoak	Euskarazko bertsioa jarriko zaie langile guztiei.
Sortze hizkuntza	Horretarako gaitasuna dutenek dokumentazioa euskaraz sortuko dute.



5. KOMUNIKAZIO KORPORATIBOA

5.1. Hedabideetako jarduna

5.1.1. Prentsaurrekoak

Udaleko hautetsiek eta langileek euskara hutsez egingo dute prentsaurrekoetan eta hedabideen aurreko adierazpen orokorretan.

Prentsa-deialdiak euskara hutsez egingo dira. Prentsa-oharrak euskaraz emango zaizkie euskarazko hedabideei, eta gaztelaniaz eskatzen dituzten hedabideei, ele bietan.

5.1.2. Elkarrizketak

Telebistan eta irratian, zuzeneko emanaldia ez bada, euskara hutsez egingo da Euskal Herriko komunikabideetan, bereziki hedabide publikoetan; erdarazko hedabideek, egoki irizten badiote, azpigitulatu ahalko dute esandakoa. Euskal Herriatik kanpoko hedabideetan, euskaraz egiteko proposamena egingo zaie, eta posible den neurrian hala egingo da; edozein kasutan, gutxienez hasiera-amaierako agurretan euskaraz egingo da horietan ere.

Telebistan eta irratian, zuzeneko emanaldia bada, euskaraz emango dira erantzunak Euskal Herriko hedabideetan, bereziki publikoetan, elkarrizketa laburra bada (2-3 galdera edota 2 minutu baino gutxiago). Horretarako, kazetariari alde aurretik jakinaraziko zaio euskaraz erantzuteko irizpidea. Elkarrizketa luzeagoa baldin bada, proposatuko da alde aurretik grabatzea, azpigituluak jartzeko denbora izateko; horretarako aukerarik ez badago, gutxienez bi galderari euskaraz erantzungo zaie. Kazetariari alde aurretik jakinaraziko zaio irizpide hori, hartara aurrez adosteko gutxienez zein galderari erantzungo zaien euskaraz.

Idatzizko hedabideen kasuan, argitaratze-hizkuntzan egingo da elkarrizketa. Hala ere, Euskal Herriko erdarazko idatzizko hedabideen kasuan, eta elkarrizketa hamar galderatik gorakoa baldin bada, eskatuko zaie bi galdera-erantzun behintzat euskaraz argitaratzeko.

5.2. Webgunea

Webguneko edukietara sartzeko hasierako orriak euskaraz egon behar du lehenespenez, eta hortik egongo da gaztelaniazko bertsiora jotzeko aukera.

Bermatuko da webguneko eduki guztiak daudela euskaraz kontsultatzeko moduan.

5.3. Sare sozialak

Euskara lehenetsiko da sare sozialetako argitalpenetan, modu honetara:



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

- X (Twitter). Euskaraz idatziko da jatorrizko txioa, eta gaztelaniazko mezua erantzun gisa bidaliko da. Webgunerako estekak jartzean, dagokion hizkuntzan jarriko da.
- Facebook. Argitalpenak ele bietan egingo dira: lehenik euskaraz, eta behean gaztelaniaz. Webguneko lotura euskarazkoa izango da.
- Instagram. Argitalpenak ele bietan egingo dira: lehenik euskaraz, eta behean gaztelaniaz.

Euskaraz idatziko dira traolak, leloak, argazki oinak eta gainerako esaldi laburrak.

Sare sozialetan kontu berri bat irekitzekotan, euskarazko izena jarriko zaio.

5.4. Publizitatea

Mezuak euskaraz sortuko dira, eta inondik inora ez da gaztelaniazko esloganen itzulpenik egingo.

Iragarkien testua ele bietan baldin badago, euskarazko testua nabarmendu egingo da. Ele bietan egitekotan, eta horretarako aukera baldin badago, ez da testu osoa gaztelaniaz jarriko, informaziorik garrantzitsuena baizik.

Euskarazko hedabideetan euskara hutsez jarriko da publizitatea, eta gaztelaniazkoetan, ele bietan.

Udalak publizitateko aurrekontuaren % 50 gutxienez bideratuko du euskarazko hedabideetara.

5.5. Iragarki ofizialak

Iragarkiak gutxienez honako hedabide hauetan argitaratuko dira:

- Gipuzkoan audientzia handiena duen euskarazko egunkarian.
- Gipuzkoan audientzia handiena duen gaztelaniazko egunkarian.
- Tolosan audientzia handiena duen toki-egunkarian.

Gaztelaniazko hedabideetan ele bietan argitaratuko dira iragarkiak, euskarazko bertsioa lehenetsita (ezkerrean edo goian); euskarazko hedabideetan, euskaraz. Iragarkiaren neurriaren aldetik euskarazko hedabideetan presentzia apalagoa ez izateko, euskara hutsezko iragarkien neurria bat etorriko da ele bietako iragarkien neurriarekin.

5.6. Zabalkunde handiko agiri ofizialak



Ele bietan argitaratuko dira zabalkunde handiko agiri ofizialak (bandoak, kaleko oharrak...). Euskara lehenetsiko da agirietan, modu hauetakoren batekin:

- *Kokapena*. Euskara goian eta gaztelania behean jar daiteke. Zutabeetan jarriz gero, ezkerrekoa euskaraz; eta, orriak badira, eskuinekoa erabiliko da euskarazkorako.
- *Tipografia*. Letra-tipoaren edo tamainaren bidez nabarmendu euskarazko testua.

5.7. Udal-aldizkaria

Aleka aldizkaria ele bietan argitaratuko da, euskarari lehentasuna emanez. Lehentasun hori bi bide hauetatik egingo da:

- *Tipografia*. Euskarriak horretarako aukera ematen duenean, euskarazko testuak tipografia nabarmenagoa izatea.
- *Neurria*. Euskaraz informazio osoa emango da, eta gaztelaniazko bertsioan, maketazioaren arabera, informazio osoa edo laburpen bat sartuko da.

5.8. Kartelak eta esku-orriak

Euskara hutsez argitaratuko dira kartelak eta esku-orriak, horretarako aukera dagoenean: mezua ezaguna edo ulertzeko erraza dagoenean, gaztelaniazko hitzen antzekoak direnean eta testua irudi bidez lagunduta dagoenean. Ele bietan argitaratzekotan, euskara lehenetsiko da, tipografia aldetik nabarmenduz eta kokapen aldetik ikusgarritasun handiagoa emanez.

5.9. Jaietako egitarauak

Udalerrri-mailako jaien egitaraua jasotzeko liburuxketan, euskara hutsez egingo da egitarauaren zati irudiduna, eta atzeko orrietan egitarau osoa txertatuko da gaztelaniaz. Egitarauaren hasieran agurrik-edo txertatuz gero, euskaraz egingo da mezu hori, eta hori jarriko da nabarmenduta, kokapen eta neurri aldetik; mezu horren gaztelaniazko laburpena txertatu ahal izango da orrialde berean.

Beste hizkuntza batzuetan ere argitaratu ahal izango da egitaraua, *online*, papereko egitarauan QR kodea txertatuta.

Arnasgune izendatutako auzoen kasuan, euskara hutsez argitaratuko da egitaraua.

5.10. Irudi korporatiboa

Papertegiarekin lotutako elementuak eta merchandisingeko elementuak euskara hutsez egingo dira.



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



6. EKITALDI PUBLIKOAK

6.1. Hizkuntza-kudeaketa lantzea

Herritarrentzako saioa antolatzen duen sailak alde zuzenetik landu behar du ekitaldian nolakoa izango den hizkuntza-kudeaketa, eta horren berri eman: batetik, saioan parte hartuko dutenei (hizlariari, aurkezleei...), aurretik argi izan dezaten nola aritu behar duten; bestetik, herritarrei, saiorako gonbidapenean zehaztuz zein hizkuntzatan egingo den. Hizkuntza-kudeaketa lantzean, aintzat hartuko da zein izango diren hartzaile potentzialak.

Deialdian zehaztu egingo da saioa zer hizkuntzatan egingo den, eta jatorrizko izenburua jarriko da: saioa euskaraz bada, euskarazko izenburua, gaztelaniaz bada, gaztelaniazkoa. Saio elebidunetan, aurretiaz hizlariarekin zehaztu behar da zer den saioa ele bikoa izatea.

6.2. Euskarazko saioak

Udalak ahalegina egingo du jendaurreko saioetarako hizlari euskaldunak topatzeko, gaia zehazki izanik ere, betiere hizlariaren egokitasuna eta edukiaren kalitatea zainduz.

Euskara hizkuntza nagusi duten saioak bultzatuko ditu Udalak; horietan, euskaraz egingo dira hitzartzeak, eta hala egongo dira idatzizko euskarriak ere. Deialdian zehaztu egingo da saioa euskaraz egingo dela.

Arnasgune izendatutako auzoetan, saioak euskaraz izango dira, salbuespenak salbuespen.

6.3. Saio elebidunak

Saioak euskaraz eta gaztelaniaz egitean, aldi bereko itzulpena erabiltzea sustatuko du Udalak: euskaraz egin hitzartzeak, eta behar dutenei gaztelaniarako itzulpena egin aldi berean —betiere hizlariak euskaldunak direnean—. Bereziki saihestuko da hitzartzeak bikoiztea, euskaraz esandakoa erdaraz errepikatzea. Itzulpena nola bideratu, dagokion sailak lotu beharko du hori ekitaldian parte hartuko dutenekin.

Ele bietako saio batera joateko izena ematean, herritarriari galdetuko zaio aldi bereko itzulpena beharko duen, hartara alde zuzenetik jakiteko itzulpenaren premiarik izango den.

6.4. Erdarazko saioak

Erdara nagusi duten saioak antolatzean, hizlariaren ezaugarriengatik edo euskarazko saioaren bikoizketa modura, bermatuko da euskarazko presentzia izango duela, agurrak eta aurkezpenak euskaraz eginez.



TOLOSAKO
UDALA



Saioa ofiziala ez den hizkuntza batean denean, aldi bereko itzulpena bermatuko da, eta, kasu horretan, gutxienez euskararako itzulpena eskainiko da. Deialdian zehaztu egingo da saioak zein hizkuntzatan egingo diren hitzartzeak eta zer itzulpen eskainiko diren.

6.5. Parte-hartzaileak

Saioaren hizkuntza-kudeaketarekin lotuta, bereziki kontuan hartuko da zein den ekitaldiaren publiko potentziala, horren arabera hizkuntza ahalik eta era egokienean erabiltzeko. Hori bideratzen laguntzeko, aurretiaz izen-ematerik egon ez den kasuetan galdetuko da bertaratutako guztiek euskaraz ulertzen ote duten, eta jasotako emaitzaren arabera jokatu da hizkuntza-kudeaketaren aldetik, irizpide hauen ildoarekin bat etorrira.

Herritarrek, hitza hartzean, euskaraz zein gaztelaniaz egin ahalko dute, eta ez zaie itzultzeko eskatuko.

6.6. Diruz lagundutako ekitaldiak

Udalak diruz lagundutako ekitaldietan, antolatzaileei Udalaren hizkuntza-irizpideak jakinaraziko zaizkie eta antolatzaileek bete egin beharko dituzte.

ESKUB892246a-2129-4390-a8f9-991f91b7b3b6



7. ITZULPENAK ETA ZUZENKETAK

7.1. Itzulpenak eta zuzenketak nola eskatu

Mezu elektronikoko baten bidez eskatu behar dira itzulpenak eta zuzenketak, helbide honetan: **euskara@tolosa.eus**.

Presazkoa baldin bada, mezuan adierazi behar da hori, **epemuga zein den zehaztu**, eta Euskara eta Hezkuntza Sailera deitu, abisua emateko eta nola bideratu hitz egiteko.

7.2. Zer ez den itzuliko

Kasu hauetan ez da itzulpenik egingo:

- **Euskara ofiziala duten erakunde publikoetara** bidali beharreko testuak (Eusko Jaurjaritza, Aldundia, udalak, Arartekoa, etab.). Euskara hutsean bidali behar dira.
- **Udalaren zerbitzu-emaielen testuak**, zerbitzuaren hartzailea Udala bera bada.
- **Gaztelaniatik euskararako testuak, non eta ez dagoen behar bezala justifikatuta**. Euskara eta Hezkuntza Sailak erabakiko du —eta hala dagokionean, Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotziak— justifikatuta dagoen edo ez, eta ez dira euskararako itzulpena eskatzeko justifikazio izango testugileak txostena gaztelaniaz errazago idaztea, presa eta abar. Horrelakoetan, langileren batek testua euskaraz sortzerakoan laguntza behar badu (pasarte korapilatsuak idazteko laguntza, euskaraz idatzitakoa zuzentzea...), Euskara eta Hezkuntza Sailera jo ahal izango du.
- **Testu labur eta sinpleak**. Langileek beren kabuz itzuliko dituzte horrelakoak, eta Euskara eta Hezkuntza Sailaren laguntza izango dute zalantzak eta abar argitzeko.

7.3. Itzulpenak nola bideratu

- **Euskaratik gaztelaniara itzuli beharreko testurik izanez gero**, itzulpen-zerbitzua erabili ahal izango da, **itzultzea beharrezkoa bada** (adibidez, herritarrek jakinarazpenak bi hizkuntzetan jasotzea eskatzen dutenean). Administrazioaren **Modernizazioa Azpisailak prestatutako txantiloak** (*Behin-behinekoa:// > 7 Administrazioaren Modernizazioa > Txantiloak eta prozedurak*) **erabili behar dira**.
- **Euskara eta Hezkuntza Sailak lehendik itzuli gabe dauden testu edo testuzatiak bakarrik itzuliko ditu**. Langileen ardura izango da **jada itzulita dauden testu zatiak hartzea** (aldizkari ofizialak, legeak, ordenantzak, lehendik Euskara eta Hezkuntza Sailak itzultitakoak...) **eta dokumentuan txertatzea**. Beraz, itzulgaiak



lehendik itzulita dagoena testuan txertatuta eta txantiloiak ere aintzat hartuta bidali behar dira, Euskara eta Hezkuntza Sailak zati berria bakarrik itzul dezan.

- **Komeni da itzultzera bidaltzen den testua azken bertsioa izatea**, behin betikoa.
- Komeni da itzultzailearen esku jartzea itzulgaiari lotutako material, erreferentzia eta informazio-iturriak.
- **Komeni da itzulpena jasotakoan itzulpena gainbegiratzea.**
- **Aldaketarik badago** (alegazioak izan direlako etab.), **testugileak txertatu beharko ditu aldaketak**, eta ondoren, aldaketa horiek nabarmenduta (beste kolore batean, azpimarratuta...), bidali zuzentzera edo itzultzera, beharrezkoa dela irudituz gero.

7.4. Zer zuzendu behar den

Jendaurreko testuak edo zabalkunde bat dutenak **derrigor** zuzendu behar dira. **Adibidez**, honako hauek:

- **Bandoak, osoko bilkuretako deialdiak eta era horretako oharak.**
- **Aldizkari ofizialetako iragarkiak.**
- **Hedabideetan argitaratzeko iragarki ofizialak.**
- **Jaietako egitarauak eta ikastaroetako liburuxkak.**

7.5. Zuzenketak nola bideratu

- Testuaren **lehen zuzenketa testugileak** berak egin behar du. Testu bat zuzentzera bidali baino lehen, idatzi duenak irakurri behar du lehenik.
- **Zenbait iturritatik kopiatu eta itsatsitako zatiekin osatutako testuak ez bidali bere horretan zuzentzera.** Testuari forma testugileak eman behar dio. Gutxienez behin irakurrita eta orraztuta bidali behar dira zuzentzera.
- **Zuzentzeko bidaltzen den testua azken bertsioa**, behin betikoa, izatea komeni da.
- Euskaraz eta gaztelaniaz dauden testuak zuzentzeko bidaltzean (adibidez, bi zutabetan), **adierazi ea itzulitakoa nola eginga dagoen** (itzultzaile neuronala, lehendik itzulitako antzeko beste dokumentu batetik kopiatua, testugileak itzulia...).
- **Erabili lehen zuzendutako testuak** norik bere biltegia osatzeko (baldintza-pleguak, antzeko txostenak, dekretuak...) eta gero eta autonomia handiagoa izateko.



- **Txostenetan eta abarretan zuzenketak egingo ditu Euskara eta Hezkuntza Sailak**, behar denean (lankide hasiberriekin, etab.), betiere, zuzenketa horiek prestakuntza-aldi gisa hartuta, eta laguntza gero eta gutxiagotan behar izatea izango da helburua.
- Aldaketarik badago (alegazioak izan direlako etab.), testugileak txertatu beharko ditu aldaketak, eta ondoren, aldaketa horiek nabarmenduta (beste kolore batean, azpimarratuta...), bidali zuzentzera edo itzultzera, beharrezkoa dela irudituz gero.

7.6. Testugintzarako ohar eta aholku batzuk

Testuak idazterakoan erabili hauek:

- Tolosako kale-izendegi ofiziala (*Behin-behinekoa > 9 Euskara eta Hezkuntza > Toponimia*).
- Sailen eta azpisailen izen ofizialak (*Behin-behinekoa > 7 Administrazioaren Modernizazioa > Txantiloiak eta prozedurak > 4 Irizpideak*).
- Txantiloiak (*Behin-behinekoa:// > 7 Administrazioaren Modernizazioa > Txantiloiak eta prozedurak*).
- Argitaratuta dauden ordenantza, arau, lege eta antzekoak hitzez hitz kopiatuta (eu eta es) eta komatxo artean.

Testuan arau, lege, ordenantza edo antzekoen zatiak txertatu behar badira, begiratu ea euskaraz ere argitaratuta dauden, asko baitaude itzulita. Ez da egokia arau edo arau-zatiak itzultzaile neuronalean itzultzea. Hala ere, izan kontuan, lege edo arau batzuk euskarara itzulita egon arren, gerora eguneratu egin dituztela, eta eguneratze horiek ez direla beti euskarara itzulita egoten. Legeren bat (edo haren bertsio berriena) euskaratuta ez badago, gaztelaniazko bertsiotik kopiatu behar da, eta kopiatutakoa komatxo artean jarri.

Ez ahaztu itzultzaile neuronalari sartzen zaizkion testuak txukunduta sartu behar zaizkiola. Bertsio zuzendua eta egokia sartu behar zaio, gramatika, puntuazioa eta abar zainduta dituen testua, eta neuronalak ematen duen itzulpena ere zuzendu eta egokitu egin behar da. Ez da itzultzaile bat, itzultzen arituko denarentzako tresna bat baizik, eta oinarri bat ematen du, testugileak/itzultzaileak landu behar duen oinarria, hain zuzen.

Horiek horrela, Euskara eta Hezkuntza Sailak lagunduko du euskarazko testuak idaztean sortzen diren zalantzak argitzen, bai eta pasarte zailak edo korapilatsuak idazten ere.



NORA ¹	Barrura	Kanpora			
HARTZAILEAK	Udala (sailak, udal-organoak, politikariak etab.)	<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzaren eta aldundiak (erakunde autonomo guztiak barne: VISESA, Izfe, Ertzaintza, Osakidetza eta abar). EAEko udal guztiak eta Nafarroan euskara ofiziala duten udalak. Sektore publikoko enpresak: EITB, Osatek, URA 	Justizia-administrazioa (epaile edo fiskal ez diren langileak)	Herritarrak, eragileak edo enpresak euskaraz eskatu du	<p>Herritarrak, eragileak edo enpresak EZ du eskatu, edo ele bietan edo gaztelaniaz eskatu du.</p> <p>Zerbitzuaren hartzailea Udala bada, Euskara eta Hezkuntza Sailak ez die itzulpenik egingo zerbitzu-emateari.</p>

¹ Dokumentua nora zabalduko den: udal barrura edo udaletik kanpora.



TOLOSAKO
UDALA



		agentzia, IHOBE eta abar.			
DOKUMENTUAREN AZKEN HIZKUNTZA²	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskaraz eta gaztelaniaz	Euskara hutsean	Euskaraz eta gaztelaniaz
SORTZE HIZKUNTZA³	Euskara hutsean	Euskara hutsean		Euskara hutsean	Euskaraz eta gaztelaniaz
UDAL ITZULPEN-ZERBITZUAREN ZEREGINA	Zalantzak izanez gero, zuzendu	Zalantzak izanez gero, zuzendu ⁴	Behar izanez gero, zuzendu eta itzuli (eu-es)	Behar izanez gero, zuzendu	Behar izanez gero, zuzendu eta itzuli ⁵ (eu-es) ⁶

² Dokumentua zein hizkuntzatan zabalduko den.

³ Dokumentua zein hizkuntzatan sortuko duen langileak.

⁴ Bidali BETI Euskara eta Hezkuntza Sailari jendurrean jartzeko edo zabaltzeko diren testuak, zuzentzeko (GAO, kartelak, egitarauak, aldizkariak, publizitatea...).

⁵ Laburrak eta sinpleak diren testuak langileak berak itzuliko ditu, eta Euskara eta Hezkuntza Sailera jo ahal izango du laguntza behar izanez gero.

⁶ Txantiloia (Behin-behinekoa:// > 7 Administrazioaren Modernizazioa > Txantiloia eta prozedurak) eta lehendik egindako itzulpenak erabili behar dira, testuak Euskara eta Hezkuntza Sailera bidali aurretik ahalik eta gehien osatzeko.

